

NOLA ERABILI

3. GELTOKIA

Bideoa ikusi aurretik, gida didaktiko honetako orrialdeen kopiak egin eta ikasleei banatzea proposatzen dizuegu. Horrela, ikasleek bideoan ikusiko dutenaren berri izango dute eta errazago ulertuko dute bideoan esaten dena. Bideo-gelako saioak ikasitakoaren berrikustea izan behar du. Ikasgelan egindako lana finkatzeko saioa, alegia.

Bideoan bi atal nagusi bereizi ditugu.

ADJEKTIBOA

03:30

*IZENONDOA
IZENLAGUNA*

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

HAUTAKETA

08:24

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

- Lau ikasleko taldeetxoak egin.
- Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.
- Hautaketa egin gelan. Gelakide bakoitzari film ezagun bateko edo liburu ezagun bateko pertsonaia baten papera eskaini, zergatiak adieraziz, *Hautaketa* saiokoek egiten duten bezala, ahalik eta adjektibo gehien erabiliz.
- Gelakideen aurrean azaldu bakoitzak erabaki duena.

OINARRIAK EUSKARAZ ABIATZEKO

3. GELTOKIA

ADJEKTIBOA

Adjektiboa izen-sintagmaren osagaietako bat da eta haren funtzioa izena nolakoa den adieraztea da. Batzuk izenaren atzean jartzen dira. Izenondoak dira.

Mutil **ederra**.

Neska **gaztea**.

Beste batzuk, ordea, izenaren aurrean doaz. Azken horiek atzizki bat daramate. Izenlagunak dira.

Mendiko botak. **Koldoren** koadernoak.

Beraz adjektiboen artean bi multzo bereiziko ditugu:

Izenondoak: izenaren atzean.

Izenlagunak: izenaren aurrean + -ko edo -ren.

Batetik izenondoak dauzkagu. Izenaren atzean jarri ohi dira, ia beti.

Bestetik izenlagunak dauzkagu. Kasu gutxi batzuetan salbu, izenaren aurrean jarri ohi dira eta *-ko* edo *-ren* atzizkien bidez lotzen zaizkio izenari.

IZENONDOA

Izen batek izenondo bat baino gehiago eraman dezake atzean.

Baserri txiki polit kutuna.

Kasu horietarako arau zehatzik ez dagoen arren, kolorea eta tamaina adierazten duten bi izenondo elkarrekin erabiltzen direnean, normalean, kolorea lehenengo eta tamaina gero jartzen direla esan dezakegu.

Auto urdin handia

Izenondoetako bat bestearen osagarri bada, osagarria atzean jartzen da.

Begi urdin argiak

Maila-adberbio gisa erabiltzen diren izenondoak: *-garri* atzizkiaz osatutakoak, *izugarri*, *beldurgarri*, *ikaragarri* eta horrelakoak besteak beste, azkenean jarri behar dira.

Itsaso zabal ikusgarria.

IZENLAGUNA

Lehenago esan dugu, izenlagunak, normalean, *-ko* edo *-ren* atzizkien bidez lotzen zaizkiola izenari.

Izenlaguna -(r)en

Izenlagun hauek NOREN kasu-markaren bitartez lotzen zaizkio izenari. Kasu-marka hau bi izen-sintagma lotzeko erabiltzen da.

Oihane. Liburua.
Oihaneren liburua

Neska hau. Begiak.
Neska honen begiak gustatzen zaizkit.

Goizean etorri den gizona. Emaztea.
Goizean etorri den gizonaren emazteak deitu du.

Izenlaguna -ko

-(r)en atzizkiaren bidez bi izen-sintagma elkartzeko erabili ohi dela esan dugu. *-ko* atzizkiaren bidez, berriz, mota guztietako hitzak elkar daitezke.

Gasteiz. Kalea.
Gasteizko kalea

Askok pentsa dezake *-ko* atzizkia NONGO kasuaren singularreko marka dela beti. Hori ez da egia.

Bi milagarren urteko haurra. (*Noizko haurra?*)

Lau urteko haurra. (*Nolako haurra?*)

Adjektiboen esanahiari begiratzen badiogu hiru multzo egin genitzake.

Horra hor hiru multzoak hainbat adibiderek.

Adjektibo baikorrak	Adjektibo neutroak	Adjektibo ezkorak
Ona	Handia	Txarra
Zintzoa	Txikia	Gaiztoa
Polita	Zabala	Itsusia
Ederra	Estua	Zatarra
Langilea	Luzea	Nagia
Dotorea	Garaia	Narrasa
Ikusgarria	Laburra	Higuingarria
Zoragarria		Nazkagarria
Miresgarria		Gorrotagarria

HAUTAKETA

Gela batean, aktore hautaketa egiten.

LILIAN Prest gaude denok?

ITZIAR Bai, bai, prest gaude.

LILIAN Ekin, Alberto.

ITZIAR Nor da?

LILIAN Julian Oyanko. James Bond-en aitaren papera egiteko.

ITZIAR Zenbat urte ditu?

LILIAN Hirurogeita zortzi.

ITZIAR Garaia al da?

LILIAN Ez da oso **garaia**. Ehun eta hirurogeita bi zentimetroko altuera dauka.

ITZIAR Ondo dago, baina ez da oso **dotorea**, nahikoa **narrasa** da. Ahots **polita** du, baina azentu **itsusia**. Ez du balio. Jarraitu.

ITZIAR Nor da?

LILIAN Estepan Leuba.

ITZIAR Zenbat urte ditu?

LILIAN Hirurogeita lau.

ITZIAR Gizon hau bai da **dotorea**, eta... ahots **polita** du. Gainera, gizon **zintzoa** ematen du, ona. Balekoa da. Ikus dezagun beste bat.

LILIAN Aintzane Larreategi, hogeita hiru urte eta ehun eta hirurogeita hamazazpiko altuera.

James Bonden neska lagunaren papera egiteko.

ITZIAR Aurpegiz oso **polita** da, gorputzez **ederra** eta **dotore** hitz egiten du. Belaunak ditu apur bat **zatarrak**, baina, beno, balekoa da. Jarraitu.

LILIAN Xabier Alkorta, hogeita hamabost urte, ehun eta laurogei eta lau zentimetroko altuera eta hirurogeita hamahiru kiloko pisua. James Bonden papera egiteko.

ITZIAR Uaohh!!! Hori mutil ikusgarria!

Dotorea, ederra. Hori bai, begirada bihurria du, baina gustatzen zaizkit begirada bihurriak.

Balekoa da. Bederatzi puntu. Jarraitu.

LILIAN Jon Aslera. Hogeita hamaika urte eta ehun eta laurogeita zortzi zentimetroko altuera.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:
Euskal Gramatika Osoa,
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI,
Josemari:
Gramatika Gaitasuna Lantzen,
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:
Euskaltzaindiaren arauak,
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com